



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

10 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, behi-azienda hiltzea dela-eta Europako Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurriei buruzkoa (4. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruzkoa (5. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, errepideetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruzkoa (5. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, hirigintzako udal planei buruzkoa (6. or.).
- Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurak nahitaez desjabetzeko tramiteei buruzkoa (8. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruzkoa (8. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, abere irinak suntsitzeari buruzkoa (10. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, langile minusbaliatuak kontratatzeari buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, etorkinen lan baldintzei buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, hainbat gaixotasunetako batez besteko gastuari buruzkoa (13. or.).

- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, tunelei buruzko araudi indardunari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, tunelen egoeraren azterlanari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, urtegien egoerari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruzkoa (19. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Galarko lurretan etxebizitzak erakitzeari eta Iruñean Teknologia Berrikuntzako Parkea instalatzeari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Nafarroako ubideko obrei buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, adin txikikoen erantzukizun penalarari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, trenbide-pasaguneak kentzeari buruzkoa (23. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruzkoa (24. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Itoizko urtegiako eta Nafarroako ubideko obren amaierari buruzkoa (24. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Itoizko urtegiak eta Nafarroako ubideak guztira ekarri duten inbertsioari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko lehen eta bigarren zatiak zertan diren jakiteko galdera (26. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obrak egiten ari diren enpresei buruzkoa (27. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen administrazio kontseiluako kideei buruzkoa (28. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Canal de Navarra, S.A. sozietateko kudeatzailearen izendapen proposamenari buruzkoa (29. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen finantza planari buruzkoa (30. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Canal de Navarra, S.A. sozietatearen kapitalari buruzkoa (31. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obretan ureztatzaileen sindikatuek, ur mankomunitateek eta erabiltzaileek egin beharreko ekarpeni buruzkoa (32. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obren lehen bi zatien hasiera atzeratzeko arrazoi zehatzei buruzkoa (33. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obren lehen bi zatien bukaera noizko aurreikusten den jakiteko galdera (34. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obren hirugarren zatien lizitazioari buruzkoa (35. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubidea egiteko hamabost urteko epearen eta epe partzialen betetzeari buruzkoa (36. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Tutera-Fontellas tarteko obren betetzeari buruzkoa (37. or.).

- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, N-232 errepedearen bikoizketari buruzkoa (37. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, N-232 errepedearen arazoaren irtenbideei eta jarduketei buruzkoa (38. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, N-232 errepedean egin gabeko kilometroen bikoizketaren kostuari buruzkoa (39. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, N-232 errepede osoa bikoiztearen aldeko herritarren plataformarekin izandako elkarrizketei buruzkoa (40. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruzkoa (41. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruzkoa (41. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, inflazioa gutxitzeko neurriei buruzkoa (42. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruzkoa (43. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, etxebizitzaren egoera arintzeko neurriei buruzkoa (43. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruzkoa (44. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Lan Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruzkoa (45. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Barne Departamentuak emigrazioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa (46. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Uxuen hildako ardiei buruzkoa (46. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruzkoa (47. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, laguntza soziosanitariorako foru plana igortzeari buruzkoa (48. or.).
- Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina, labore transgenikoak direla-eta onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa (49. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Vianako Las Cañasko aintziraren egoerari buruzkoa (49. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Viana II aldea ureztatzeke eremu bihurtzeko gasturik ez aurreikusteari buruzkoa (50. or.).
- Zeliakoen elkarrekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua (51. or.).
- Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua (51. or.).
- Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua (52. or.).

F saila:
GALDERAK

Behi-azienda hiltzea dela-eta Europako Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurriei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak behi-azienda hiltzea dela-eta Europako Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Europako Batasunak "behi eroen gaitza" edo behi aziendaren entzefalopatia espongiforme delakoa desagertarazteko hartutako erabakiak, urriaren 1ean indarra hartutakoak, zenbait betebeharrak ezarri zituen hamabi hilabetetik gorako behi-

aziendako buruak hiltzearen inguruan, horien artean garrantzitsuena, "MER direlakoak (material arriskutsuak) atera eta suntsitzea eta ezten luze bat (deskabelloa, sastakaia) abelburuaren garezurraren barrunbean sartuz hiltzeko debekua".

Egoera berri horren aurrean eta Nafarroan zezenketari dagokionez, hauxe jakin nahi dugu:

1.-Zein dira Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriak Europako arauak, "ezten luze bat garezurraren barrunbean sartzeko" debekuari dagokionez, betetzeko?

2.-Nafarroako Gobernuak Nafarroako Zezen Ikuskizunen Erregelamendua aldatu behar al du Europar Batasunak 2000ko urrian emaniko araura egokitzeko?

3.-Nafarroako Gobernuak eskatuko al dio Estatuko Gobernuari Europar Batasuna premia-tzeko "12 hilabetetik gorako behi-aziendako buruak ezten luze bat garezurraren barrunbean sartzeko" baimena emateko aukera azter dezan?

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoan adjudikatu izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Tributu Ogasunean telefono deiak hartzeko zerbitzua kanpoko enpresa bati adjudikatu zaio.

Horren aurrean, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zerbitzu hori adjudikatzeko zenbat enpresa aurkeztu dira? Zein zen hasierako prezioa? Zein da Nafarroako Tributu Ogasunak onartu duen eskaintza? Adjudikazioaren baldintzen pleguaren kopia nahi dugu, bai eta aurkeztutako enpresen zerrenda eta horietako bakoitzak eskainitako baldintzak.

2.- Zerbitzuaren enpresa adjudikazio hartzaileak eskura al du Nafarroako zergadunen datu basea?

3.- Nafarroako zergadunen isilpekotasuna bermatzen al da, kontuan harturik informazio guztia kudeatuko duena enpresa pribatua dela? Zein dira isilpekotasuna bermatzeko ezarri diren mekanismoak?

4.- Telefono deiak hartzeko zerbitzuaren barne funtzionamendua zein izanen da? Zergadunen zalantzak eta arazoak enpresa adjudikazio-hartzaileak berak konponduko ditu ala Nafarroako Tributu Ogasunaren zerbitzu teknikoetara bideratuko ditu?

5.- Lan hori, alegia, Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzea, ez al da funtzionarioei dagokien eginkizuna, beste enplegatu edo langile batzuen esku utzi ezin daitekeena?

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Errepideetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak errepideetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Sustapen Ministerioa plan bat ari da aurrera eramaten, Francisco Álvarez Cascos ministroak ere berretsi du, errepideetako zenbait lekutan dauden segurtasun hesiak babesteko. Zenbait

azterlanen arabera, motorzale asko, irrist egin eta hesi horien kontra jotzean, gorputz atalak moztuta gertatzen dira. Estatuko Gobernuaren ekimen horren aurrean, hau jakin nahi da:

1.- Aztertu al du Nafarroako Gobernuak segurtasun hesiak babesteko aukera –PVCa, poliesterra edo elementu metalikoak erabiliz– Nafarroako errepideetako zenbait lekutan, motorzaleek kolpe eta istripu gehien izaten dituzten guneeetan hain zuzen?

2.- Diseinatu al du Nafarroako Gobernuak neurri bereziren bat seinale horizontaleetan pintura irristakaitza jartzeko?

Baldin eta neurri horiek kontuan izan baditu Nafarroako Gobernuak, jakin nahi nuke zer kostu izanen duten, neurriei buruzko plangintza eta zein leku zehatz babestuko diren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Hirigintzako udal planei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak hirigintzako udal planei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Herri guztiek beharko lukete hirigintzako udal plana, behar bezala eguneratua, herri bakoitzaren ezaugarrien isla izanzen litzatekeena, bai eta arduradun publikoek herriari etorkizunerako eman nahi dioten proiektioarena ere. Nafarroako Gobernuaren eginbeharretako bat da plan horiek sustatzea.

Hori horrela, hau jakin nahi da:

1.- Zenbat eskualde daude etxebizitzak zaharberritzeko bulegorik gabe, eta zergatik gertatzen da hori? Ba al du Nafarroako Gobernuak inongo ekimenik Nafarroako herri guztiek izan dezaten etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa?

2.- Zenbat herri daude hirigintza plangintzarako inongo tresnarik gabe?

3.- Zenbat herri ari da berraztertzen udal planamendua eta zer egunetik aurrera gertatu da egoera horietako bakoitza? Zerrenda nahi nuke eta bakoitzaren egoera.

4.- Zenbait herritako planak behin betiko onenaren zain daude Lurraldearen Antolamendu Departamentuan. Noiztik? Zein dira arrazoiak, espediente bakoitzean, ebazpena arinago ez emateko?

5.- Ba al du Nafarroako Gobernuak asmorik udal planak legediari egokitzeko, hala Estatukoari nola Nafarroakoari? Nola egingen du? Zer neurri jarriko ditu horretarako?

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Tributu Ogasuneko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Irailaren 22an, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak 369/2000 Ebazpena sinatu zuen; horren bitartez, 2001. urtean tributu arloko galderak telefonoz erantzuteko zerbitzua esleitzeko prozedurari ekiteko baimena eman zen.

Orobat, iazko abenduaren 12an, telefonoz erantzuteko zerbitzu hori esleitu zitzaion Bilboko "Atento Comunicaciones" enpresari; kontratuaren aurrekontua 37 milioi pezetakoa da.

Ogasun Departamentuko Langileen Batzordea zerbitzu hori pribatizatzearen aurka agertu da, eta ez daki zer irizpide edo arrazoik eragin duen Tributu Ogasuneko arduradunen erabaki hori; zuzendari kudeatzaileak berak adierazi zion Langileen Batzordeari pribatizatzearen arrazoia ez zela zerbitzua merkeago ematea.

Erakunde autonomo horren arduradunek esan omen dutenez, zerbitzua, dirudienez, ez omen da behar bezala ematen.

Azpimarragarria da, halaber, GEDESA enpresa publikoak zerbitzu hori hartzeko lehiaketara aurkeztu nahi zuela; dirudienez, ordea, lege-arrazoiak eman omen ziren aurkeztu ez zedin.

Horiek horrela, hau jakin nahi da:

– Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak erabaki du, esan dugunez, 2001. urtean tributu arloko galderak telefonoz erantzuteko zerbitzua pribatizatzea. Kudeaketari dagozkion zein arrazoi eta irizpidetan oinarritu du erabaki hori?

– Zer datu, froga, lan... hartu ditu oinarri Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak esateko zerbitzua ez dela behar bezala ematen?

– Egia al da Nafarroako Zerga Ogasuneko artxiboaren kudeaketaren pribatizazioa ari dela prestatzen etorkizunerako? Zer irizpide eta arrazoik justifikatuko lukete pribatizazio hori?

– Eman behar dituen zerbitzuen kudeaketa-formulari buruz, zer irizpide politiko ditu Nafarroako Zerga Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak? Pribatizazioak egiten jarraitzea izanen al da irizpidea hemendik aurrera ere? Ba al da horri buruzko inongo aurreikuspen, plan edo egutegirik?

– 2001. urtean tributu arloko galderak telefonoz erantzuteko zerbitzua esleitzeko prozeduran zergatik ez zitzaion parte hartzen utzi GEDESA enpresa publikoari?

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurak nahitaez desjabetzeko tramiteei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurak nahitaez desjabetzeko tramiteei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurak nahitaez desjabetzeko tramiteak hasi dira egunotan. Gure taldeak jakin duenez, herritarrak kexatu egin dira administrazioak egindako tasazio baxua dela eta, eta hori hala izatea deigarria da; izan ere, desjabetzeko beste tramite batzuk egin zirenean –Iparraldeko autobia, Altsasuko autobia– administrazioak eskuzabal jokatu zuen.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak tramite horiei buruz?

– Urtegiak politika zein gizarte mailan sortu dituen arazoak eta obraren interes orokorra kon-tuan izanik, ez al luke ahalegin handiagoa egin beharko Nafarroako Gobernuak ordainketak egite-rakoan?

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Gauza jakina da alfabetizazio informatikoa gizarteko erronka nagusietariko bat dela. Teknologia guztiok berdin eta bazterkeriarik gabe eskuratu ahal izateko beharrezkoak diren bideak sortzeko betebeharra daukate botere publikoek. Bestalde, Nafarroakoa bezalako gizarte batean, zeina lurraldean barreiatuta baitago, beharrezkoa da komunikazio-teknologia herri guztietara iristea. Autonomi erkidego asko ari dira beharrezkoak diren urratsak ematen. Berriki jakin ahal izan da Extremadurako Juntak bere administrazio guztia Interneteko banda zabalera konektatuko duela eta lehiaketarako deia egin duela 1.476 zentro publiko baino gehiagok sarbidea izanen duteneko Intranet baterako.

Horregatik, hauxe jakin nahi da:

– Zer ekintza egiteko asmoa du Foru Diputazioak Internet bezalako komunikazio-teknologiak denen eskura jartzeko?

– Zenbat ikastetxe publiko eta liburutegi publikotan dauka biztanleriak Interneterako sarbidea, bai neurketa absolutuan bai ehunekoetan?

– Nafarroako zein herrik daukate kable bidezko telebista digitalerako sarbidea?

– 10.000 biztanletik 5.000 bitarteko herrietara, 5.000tik 2.000ra bitartekoetan eta 2.000tik beherakoetara kable bidezko telebista digitala zenbateko epean iritsiko dela jotzen da?

– Teknologia berriak direla-eta, kable bidezko telebista digitala instalatzeko planak berrikusteko asmorik ba al dago?

– Zein da Intraneteko sistema Foru Administrazioan? Zentralizatuta dago? Zenbat puntu eta zentrotara hedatzen da?

– Ba al du asmorik Foru Diputazioak telefonia integraleko zerbitzuak (intranet eta internet barne) emateko lehiaketarako deia egiteko?

– Zergatik segitzen du Foru Diputazioak enpresa bakar baten kontratuarekin, lehiaketarik gabe, telefonia-arloan gertatzen ari den liberalizazioa gorabehera?

– Zenbatekoa da Foru Diputazioak Telefónica, S.A.ri urtero ordaintzen dion faktura?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako galdera bat egin dio Lehendakariari, Justizia eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun diezaión.

Iritzi publikoak berriki jakin du NATOko soldadu amerikarrek uranio pobretua zuten bonbak erabili zituztela Jugoslavia ohiko "salbazio" gerran.

Galdera:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak Bardeetan oraindik ere dagoen poligonoan NATOko indarrek mota horretako armak erabiltzen dituzten bonbardatze praktikak egiteko?

2. Zein informazio jasotzen du Nafarroako Gobernuak praktika militarren inguruan: praktika motak, noiz egiten diren, orduak, eta abar?

3. Zein kontrol sistema erabiltzen du Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko tiro ariketa horiek ez dutela ondorioz alde hartako biztanleengan?

4. Zein kontrol sistema erabiltzen du alde hartako nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen egokitasuna bermatzeko?

5. Nafarroako Gobernuak ziurtatu ahal die erki-degoko herritarrei ez gaur ez atzo, ez eta 2001eko ekainaren 9ra arte, ez dela eginen alde hartako herrietan ondorioak izan ditzakeen praktikak?

6. Nafarroako Gobernuak duen berme bakarra unean-uneke Defentsa Ministroaren hitza al da?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Abere irinak suntsitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak abere irinak suntsitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Europar Batasunak debekatu zuen gizakien kontsumorako edozein espezieren elikaduran abere irinak erabiltzea. Hori dela eta, Estatuko Administrazioak eta Nafarroako Gobernuak Andosillako bi fabriketako biltegietan zeuden haragi irinak atzeman ditu, bai eta hurrengo sei hilabetee-tan eginen direnak ere. Era berean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Andosillako planta haue-tako irinak lurperatzea Erriberako Hondakinen Mankomunitateak El Culebrete izeneko alderdian

duen hondakindegian. Azken erabaki honen kontrako kritika ugari izan da, Cascanten PSN buru duen gobernu taldearen aldetik nola erakunde ekologisten aldetik.

Horren inguruan, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak aztertu al du haragi irin horiek suntsitzeko beste moduren bat, hondakindegia batean lurperatu beharrean ?

2. Zein dira Nafarroako Gobernuaren arrazoiak haragi irin horiek "el Culebrete" izeneko alderdian lurperatzeko eta ez Carcarko hondakindegian, Andosillatik askoz gertuago badago ere? Erabakia justifikatu eta sostengatzen duten txosten tekniko-en kopia eskatzen dugu.

3. Nafarroako Gobernuak onetsitako hiri hondakin solidoen plana beteko al du hondakindegia horrek, bereziki hondakindegia horietan gordeko diren hondakin motei dagokienez? Eskaini al zaie aukera hori irinak bildu ahal zituzten beste hondakindegia batzuei? Zergatik ez zaie eskaini?

4. Erriberako Hondakinen Mankomunitateak ordainen bat hartuko al du haragi irin horiek "El Culebrete" alderdiko hondakindegian jaso eta biltzeagatik?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Langile minusbaliatuak kontratatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak langile minusbaliatuak kontratatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

1997az geroztik indarra du Espainian, guztien dako, 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan lanpostu kopuruaren % 2 minusbaliatuentzat gordetzeko betebeharrak. 2000ko azaroaren 28an CDNren Parlamentuko Taldeak gai horren inguruko galdera bat egin zuen bai eta, bidenabar, Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoe-

tako langile minusbaliatuen kopuruaz ere. 2000ko abenduaren 21ean erantzun motz eta eskasa jaso genuen, egindako galderari inondik ere erantzuten ez ziona. Hori dela eta, galdera errepikatzen dugu, ondok ematen den bezala, Parlamentuko jardunak eskatzen duen seriotasunaz eta zorrotasunaz erantzuna eman dakion:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroan egoitza duten enpresetan dauden langile minusbaliatuen kopurua, 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan lanpostuen % 2 minusbaliatuentzat izan behar direla ezartzen duen araua betetzeko? Datu horien berri ez badu, aurreikusirik al du kontrol sistemaren batez baliatzea Nafarroako enpresek legez ezarritako moduan minusbaliatuak kontratatzeko betebeharra bete dezaten?

2. Zein da neurri horren eragina Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetan? Bakoitzean dauden minusbaliatuen kopurua eskatzen dugu, bai eta enpresa publiko bakoitzean dauden langile guztien kopurua ere.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Etorkinen lan baldintzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak etorkinen lan baldintzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari

M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Berriki, Lorcako tragediak agerian utzi du, berriro ere, etorkin “papergabeek” gure herrian pairatzen duten egoera lazarria; etorkin horiek, Europako Parlamentuak berak erabiltzen duen hitz bat erabiliz, sasiesklabutzako baldintzetan lan egiten dute. Merkatu handi bat bilakatu da sistema, eta bertako administrazioak giza esplotazio nabarmeneko egoerak lehiakortasunaren eta produktibitatearen mesedetan onartarazten ditu.

Estatuko Gobernuak Atzerritarrei buruzko Legean egintza aldaketak babesik gabe uzten ditu

pertsona "papergabe" guztiak; horientzako irtenbide bakartzat kanporatzea ezartzen du, baina ez da horrela jokatzeko urruneko herrialdeetakoak direnean, kanporatzea oso garestia delako kasu horietan. Legez kanpoko giza taldeak egotearen ondorioz, "papergabeek" esplotazioa jasaten dute, egunegun bizirauteko beharrak onartezina dena ere onartzera behartzen baititu. Egoera hori lotsagarria da erakunde demokratikoentzat, demokraziaren balioak zaintzeko betebeharrak baitute, eta erakunde horietako ordezkariok behartuta gaude "papergabeen" inmigrazioari irtenbide politikoak bilatzera.

Paperik, lan- edo gizarte-eskubiderik eta legeen babesik gabeko langileak, hein handi edo apalagoan, nekazaritza-eskualde askotan erabiltzen dira, batez ere ustiategi handietan. Etorकिनen etorrera masiboa ez da gauza berria Nafarroako Erriberako hainbat eskualdetan, non etorkinak nekazaritza-ustiategietara garraiatzen dituzten furgonetak eta, kasu batzuetan, autobusak ere inolako kontrolrik gabe baitabiltza.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1) Zer nolako kontrol ezarri dira Nafarroako nekazaritza-eskualdeetan langile etorkinen lan-egoerari dagokionez?

a) Lan-kontratuen kontrola

b) Langileen egonaldiaren baldintzen gaineko kontrola (etxebizitza, osasuna eta seme-alaben hezkuntza).

c) Adingabeen kontrola nekazaritza-ustiategietan

d) Langile etorkinak garraiatzen dituzten ibilgailuen joan-etorrerak (furgonetak, kamioiak eta autobusak).

2) Nafarroan 2000ko abendura arte enpresari irekitako espedienteen kopurua, enpresa-jarduera bakoitzean; bereziki, nekazaritzaren eta alterne-lokalen arloetan.

3) Langile etorkinen lan-baldintzak urratzeagatik irekitako espedienteen izapidatzearen batez besteko iraupena.

4) Enpresen jardueran aplikaturiko zehapenen eta ebatzita espedienteen kopurua.

5) Zer nolako irtenbide ematen ari diren Nafarroan lurralde txirotueto gosate eta lazeriatik ihes eginez etorritako pertsonen lanerako duten giza eskubidea babesteko.

a) Zer baldintza eta eskubide bermatzen zaizkie Nafarroan langile etorkinei euren lan-baldintzak urratu dituztenean edo esplotazio hutsa pairatzen dutenean, baldin eta langile horiek legez kanpoko egoeran badaude?

b) Etorकिन papergabeak Nafarroan legez egon ahal izateko eta haien egoera legezkotu ahal izateko jarraitzen den prozedura eta ematen diren epe eta erraztasunak zein dira?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduari jarraituz, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein diru-kopuru zehatz erabiliko du zure Departamentuak eskualde mistoko errepide-sarean gaur egun dauden seinale elebidunak ordeztzeko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Hainbat gaixotasunetako batez besteko gastuari buruzko galdera**FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak hainbat gaixotasunetako batez besteko gastuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Adimen osasunari buruz Nafarroan eginiko jardunaldietan psikiatriako espezialistek agerian utzi dute zein txikia den Nafarroan adimen gaixotasunetan egiten den gastua. Zehazki, Vicente Madoz jaunak, joan zen urriko jardunaldietan adierazi zuen "adimen osasunean oso gutxi gastatzen da, dauden premietatik urrun, eta oso desproporzionatua onkologian eta kardiologian bezalako espezialitateetan egiten den gastuaren aldean".

Dirudienez, adimen arloko eritasunetan eskasia da osasun eta gizarte politika guztien ezaugarria. Ikerketa gutxi, medikamentuen gehiegizko erabilera, Espainian psikiatriako profesionalen artean dagoen prestakuntza bereziaren gabezia, gaixoei eta familikoei gizarte sostengua emateko baliabide eza endemikoa, errehabilitazio eta psikoterapiarako antolakuntza falta, eta bestelako gabeziak, mota honetako gaixoen eta gaixotasunek pairatzen duten estigmari gehituta, ezinezkoa bilakatzen da, XXI. mendean egonik ere, beste gaixo askok jasotzen dutenaren pareko tratamen-

durik lortzea; izan ere, beste gaixo horiek Nafarroako osasun sistema publikoaren gaitasunaren onurak hartzen dituzte, sistemak beste espezialitateetan inbertitzen baitu zerbitzuak eta azpiegiturak berritzeko, Foru Komunitateko gaitasun ekonomikoez baliatuz; bestalde, Foru Komunitateak ez du orain baino lehen izan egoera ekonomiko hobegorik, nazioarteko abagune onari esker.

Horregatik guztiagatik hauxe jakin nahi dugu:

1) Azken hiru urteetan, urtean izan den batez besteko osasun gastua, gaixo bakoitzeko, eritasun hauen tratamenduan:

- kardiologia
- onkologia
- organoen birlanaketa
- giltzurrunetako eritasunak
- GIB eta HIES
- adimeneko eritasunak

2) Azken hiru urteetan, urtean izan den batez besteko gizarte gastua, pertsona bakoitzeko, ondotik zehaztutako gizataldeetan, honakoetan:

- a) gizarte zerbitzu eta dispositibo berariazkoak
- b) gizarte laguntza gisa emandako prestazio ekonomikoak

- drogamenpekotasuna dutenak
- HIESdutenak
- desgaitasun psikikoa dutenak
- desgaitasun fisikoa dutenak
- zentzumenezko desgaitasuna dutenak
- Garuneko erasana dutenak
- Adimeneko gaitasuna dutenak

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Kanpatzeko hainbat eremutan 1996an izandako ezbeharren kariaz, Nafarroako Gobernuak

eremu horietako instalazioetako arriskuei buruzko azterlan bat egin zuen, eta koordinazio-lanak Departamentu horren ardura izan ziren. Azterlanak xede zuen analisi bat egitea abiatzen zeneko egoerari buruz, zeuden arazoak konpontzeko beharrezkoak ziren neurriei buruzko ebaluazioa egitea eta antzemandako arazoei aurre egiteko finantzaketa publikoko lerroak zehaztea.

1.- Azterturiko kanpinak kokaturik daudeneko toki entitateei zer informazio eman diezue?

2.- Establezimendu horien jabeek laguntza publikoko zein lerrotara jo ahalko dute nor bere egoera zehatzari aurre egiteko?

3.- Berriki onetsiriko 2001erako aurrekontuetan, zeinak berriki onetsiak izan baitira, ba al dago diru kopururik jarduketa horiei ekin ahal izateko?

4.- Departamentuen arteko batzordeak zenbat bilera egin zituen 1999an? eta 2000n?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Tunelei buruzko araudi indardunari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak tunelei buruzko araudi indardunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak, Biltzarreko

Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako Herrilan Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Azken urteotan gertatu diren ezbeharrek direla-eta, tuneletako segurtasuna berraztertzen ari dira. Berriki argitaraturiko azterlan batek Belateko tunelak sutarik badago arriskutsuak direla dio, gehienez ere 200 metroko tarte bakoitzeko ez duelako larrialdietarako irteerarik.

Galdera:

1.- Gaur egun Europar Batasuneko eta Foru Komunitateko araudi indarduna zein da?

2.- Zure Departamentuak ba al dauka egokitzapen-kostuei buruzko balioespenik?

3.- Zure Departamentuaren aburuz, egoki diren jarduketeki ekin behar al zaie?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

4.- Zein epe aurreikusi dituzu afera honetan?

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Tunelen egoeraren azterlanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak tunelen egoeraren azterlanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau

egin du, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Belateko tunelen inaugurazioa berriki izan den arren, hainbat gorabehera gertatu dira; horien ondorioz, tarte nahiko luzetan itxi behar izan dira, eta horrek, ulertzekoa denez, kezka eragin du errepideko erabiltzaileen artean.

1.- Bukatu al du jadanik Departamentuak Nafarroako errepideetako tunelen egoerari buruzko azterlana, 2000n zehar eginen zuela agindu zuen hori, hain zuzen ere?

2.- Zein prestatze-fasetan dago azterlan hori?

3.- Zein arrazoi aipatu behar ditu zure Departamentuak atzerapen hori justifikatzeko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentari: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Urtegien egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak urtegien egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Tous-eko urtegia 1982an hautsi zenean, ikusi zen beharrezkoa dela urtegien eraikuntza zainetzea ez ezik, balizko hausturen arriskua administrazioa eta aurrezaintzea ere. 1996an Erregelamendu zorrotz bat onetsi zen, urtegi-tako uretatik behera dauden pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo haien jasan beharreko ondorioen minimizazioa istripu-kasuetan bermatzeko.

Herrialde batzuetan, Estatu Batuetan, Italian eta Suitzan kasu, ibaiaren ibilguetan zehar hainbat ohar jarri dituzte ura zein mailataraino irits daitekeen eta leku horretaraino iristeko behar izan den denbora adierazteko; halaber, herritarrentzako alarma-sistemak, seinaleak eta abar daude.

Espanian, presak hiru taldetan sailkatuta daude, izan lezaketen balizko arriskuaren arabera: A, B eta C.

A taldekoek "larriki kaltetu ditzakete herrigunak edo funtsezko zerbitzuak, eta ingurumen-kalte edo kalte material oso larriak eragin ditzakete".

B taldekoek "ingurumen-kalte edo kalte material larriak eragin ditzakete, edo etxebizitza-multzo urri bat kaltetu".

C taldekoek "kalte material ez oso larriak eragin ditzakete, eta, ez derrigorrean, pertsonen heriotza eragin lezakete".

Lehen bi taldeetan sartutako urtegiak "Larrialdietarako plan bana izan beharko dute". Erregelamenduak urtebete eman zien urtegi horietako kontzesio-hartzaileei eskakizun berri hori betetzeko.

Hori horrela izanik, honako hau jakin nahi dugu:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak zein taldetan sailkatuta dagoen Nafarroako urtegi bakoitza?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki Nafarroako urtegiak eginak eta baliozkotutako ote dituzten larrialdietarako planak, 1996an Estatuko Gobernuko Herrilan Ministerioak onetsitako nahitaezko baldintza gisa?

3.- Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak gaur egungo Sustapen Ministerioako arduradunekin hitz egiteko, urtegi bakoitzeko kontzesio-hartzaileak nor bere "larrialdietarako plana" eguneratua eta onetsia izan dezan?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzua pribatizatzearen ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Ekonomi eta Ogasun Departamentuak erantzun dezan.

Nafarroako Tributu Ogasuneko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 7ko 508/2000 ebazpenaz, Atento TeleComunicaciones España, S.A. enpresari adjudikatu zitzaion 2001. urtean tributuei buruzko telefono deiak hartzeko zerbitzuaren kontratazioa.

Zerbitzu hori, orain gutxi arte, leihatila bakarreko zerbitzuan ari ziren Nafarroako Gobernuak Ogasun Departamentuko langileek eman dute. Horrenbestez, zerbitzu publiko baten pribatizazioaz ari gara, orain arte Administrazio Publikoko langileek ematen zuten zerbitzua, hemendik gutxira enpresa pribatu batek kudeatuko baitu.

Egoera horren aurrean, Parlamentuko talde honek ondoko zehaztasunak nahi ditu:

1. Zenbat dei erantzun dira 2000. urtean zehar Ogasun Departamentuko leihatila bakarreko telefono zerbitzuan?

2. Dei horietako zenbati eman zaio erabiltzaileak behar zuen erantzuna, eta zenbat izan dira alferrik delako kontsultari erantzuteko Ogasuneko teknikariren baten parte-hartzea behar zelako?

3. Zenbat langile daude leihatila bakarreko telefono zerbitzuan lanean?

4. Atal horretako langileek beste lanik egiten al dute?

5. Aintzat hartu al du Nafarroako Gobernuak leihatila bakarreko zerbitzuan Administrazio langile gehiago jartzeko aukera?

6. Zenbat langile beharko lirateke zerbitzu hori emateko adjudikazioa hartu duen enpresaren baldintza beretan?

7. Ze kostua izanen luke behar diren langileak hartzeak?

8. Zein lan egoeratan geratzen dira kontratazioaren xede diren eginkizunetan orain arte aritu diren pertsonak?

9. Zer nolako telefono-kontsultak erantzunen ditu adjudikazioa hartuko duen enpresak?

10. Enpresa horrek eta bere langileek Nafarroako zergadunen datuak eskuratzetik izanen al dute?

11. Nola bermatuko da datu horien isilpekotasuna?

12. Zer nolako prestakuntza teknikoa dute tributu arloko telefono-kontsultei erantzuten arituko diren langileek?

13. Nafarroako Tributu Ogasunari atxikitako langileek prestakuntza ikastarorik eman al diete zergadunen telefono deiak hartzen arituko den enpresako langileei?

14. Baiezkoan, ikastaro hori lan orduetan eman al dute?

15. Nafarroako Tributu Ogasunak aurreikusita al du enpresa pribatuak kontratatzea orain arte erakunde autonomo horretako langileek eman izan dituzten zerbitzuak emateko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurrekontuko azken hiru ekitaldietako superabitari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Nafarroako aurrekontu orokorre, ekitaldiz ekitaldi, ezaugarri izan dute dirusarrera publikoei buruzko aurreikuspenak bete ez izana; izan ere, Ogasun Publikoaren dirusarreraren hazkuntza urtero beherantz joz egiten diren aurreikuspenen oso gaitetiko da. Hori dela-eta, Gobernuak gastuetarako benetan eskura daudenak baino baliabide ekonomiko gutxiago daudela esan ahal izaten du, eta, horrela, herritarren beharrezanean errealdismo eta eraginkortasun handiagoz aurre egiteko azpiegitura eta zerbitzuetako inbertsioetarako beharrezkoak diren baliabideak kentzen dira.

Elkarren segidan izan diren superabitak zerga-murrizketako politikak sustatzeko erabili dira.

Murrizketa horiek progresibitatea ezabatu dute, eta errentarik altueneko gizarte-taldeen ahalmen ekonomikoaren araberako proportzioan egin dute mesede. 1999ko zerga-murrizketak birbanaketaren arloan ekarri zuen bidegabekeriaren adibide, pentsiodunen datuak dauzkagu: PFEZeko atxikipena murriztearen ondorioz, 500 milioi pezetatik gorako irabazia lortu zen pentsiorik altuenetan, eta errenta baxuenak dauzkaten pentsiodunentzat kopuru horrek ez zuen Nafarroako aurrekontuetatik gutxieneko pentsioetarako osagarrien bitartez bideraturiko onurarik ekarri.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1) Azken hiru (1998, 1999 eta 2000ko) aurrekontu-ekitaldietako superabitaren zenbatekoa.

2) 1998ko eta 1999ko ekitaldietako superabita nora bideratua izan den.

3) 2000ko aurrekontu-ekitaldian aurreikusita-koaren gaitetik bildutako 16.600 milioiak aurrekontu publikoko zein kontusail eta kontzeptutara bideratuko diren.

4) Lehen erreforma fiskala egin zenetik Foru Ogasunak biltzeari urtero utzi dion zenbatekoa zein izan den.

5) Erreforma fiskal berriari aurreikusten zaion urteroko kostua zenbatekoa den. 2001ean bildu gabe zer kopuru geratuko zaiola aurreikusten du Foru Ogasunak?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko gizarte gaietarako eledun M^a Isabel Arboniés Bermejok honako galdera hau egin du, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzun dadin:

2000ko ekainean, IUN/NEB taldeak Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizateko kontseilariaren agerraldia eskatu zuen, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeari berri eman ziezaion adingabeen erantzukizun penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoan bildutako neurrien aplikazioari buruz; lege horren indarraldia hasi berria da, eta lege hori betetzeko eskumena autonomia erkidegoena da. Aipaturiko agerraldia 2000ko irailaren 29an izan zen.

Funtsean, kontseilariari eskatu zitzaion argibideak eman zitzala Nafarroan araubide itxi, erdi ireki eta irekiko internamendu-neurriak eta drogamenpeketasunak edo nahaste psikikoak dituzten adingabeen internamendu terapeutikoko neurriak aplikatzeari buruz, eguneko zentroyen jarduerari buruz eta zaintzapeko askatasunari eta garrantzi txikiagoko beste neurri batzuen aplikazioari buruz. Helburua zen Batzordeak jakin zezala ea Nafarroak azpiegitura egokiak dauzkan, azpiegitura berriak eratze asmorik ote zegoen, eta ea Nafarroan ba ote diren profesionalak behar bezalako prestakuntza daukatenak zehaturiko adingabeen berreziketa eta bergizarteratze lanetarako.

Aipaturiko batzordean neurri horien betetzeari dagokionez aipaturiko arazoak ziren, batetik, araubide itxiko internamenduko eta arazo psikikoak dauzkaten adingabeak –zeinak ugaritzen ari baitira eta euren adina jaisten ari da– tratatzeko internamenduko neurriak aplikatzearen kostua, 10 eta 12 milioi bitartekoa, eta, bestetik, drogamen-

peketasuna daukaten adingabeentzako neurriak; izan ere, esparru horretan Nafarroak ez dauka dotaziorik. Eledun guztien adostasuna lortu zen oinarritzko bi punturen inguruan. Bata zen adingabeek ez dutela Foru Komunitatetik kanpora irten behar, eta, bestea, kostu ekonomikoak ez duela erabakigarri izan behar zehapenak adingabeek euren erkidegoan bete ahal izateko beharrezkoak diren azpiegiturak egokitu edo eratzerakoan.

Batzorde hartan aurreikusi zen Adingabeen Legearen aplikazioa atzeratu eginen zela, autonomia erkidegoek ez baitzeuzkaten behar diren azpiegiturak, eta inbertsioaren zenbatekoak legearen aplikazioa atzeratzera behartzen zuelako. Baina ez da hala izan. Kalkuluen arabera, 50 mila milioi pezeta inguru behar dira autonomia erkidegoek legea abiarazteko. Orain arte, PPren gobernuak 4.400 bideratu dizkie erkidegoei. Deigarri gertatzen da autonomia erkidego guztiek, Nafarroak izan ezik, neurrien kostu ekonomikoa zenbateksi izana. Kostu hori Andaluziako 13.800 milioietatik Murciako 800etara bitartekoa da. EAEn, jadanik 5.000 milioi inbertitu dira. Nafarroak, ordea, zero pezetako estimazioa egin du.

Lege horrekin jauzi bat egin da amildegian barrena, eta, horren bidez, PPren gobernuak Estatu osoko adingabeak arrapaladan bultzatu ditu zehapenak betetzera, baina azpiegiturarik eta giza nahiz gauza baliabiderik gabe. Gizartearen ikuspegitik, egoera asaldagarria da, eta etikoki itxuragabekeria da adingabeak, zeinak mundu zibilizatu osoan babestuta baitaude, besterik gabe zigortzea: Estatu Batuak izan ezik, inongo herrialde ez da ausartu gurean bezain zigor gogor eta apartekoak ezartzera: 10 urterainoko internamendu eta sakabanaketa. Begi-bistakoa da ziztu bizian goazela zigor Estatu baterantz; hau da, zehaturiko adingabeen babesa, berreziketa eta bergizarteratzea bezalako eskubideak urratzerantz. Adingabeek gerra eta gerrilletan parte hartu duteneko herrialdeetan bertan ere ez dira ausartu tankera horretako zigorrak ezartzera. Auzitan geratzen da Adingabeen Legearen oinarria, adingabearen interes gailena aipatzen zuena bera, eta puntu hori azpimarratu zuen Gizarte Ongizateko kontseilariak bere agerraldian. autonomia erkidegoak baliabiderik gabeko adingabeak zigortzera bultzatu eta behartzeak adingabearen interes gailenari gailentzen zaizkion interes indartsuak dardela egiaztatzen garamatza.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1) Adingabeen Legean bildutako neurriak Foru Komunitatean abiarazteko zenbatetsitako guztizko kostua.

2) Ohartarazi al du Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernua, araubide itxiko internamendu-neurriak eta drogamenpekotasuna edo nahaste psikiko larriak dauzkaten adingabeen internamendurako neurriak bete ahal izateko azpiegitura egokirik ezaz eta bestelako giza nahiz gauza bitartekorik ezaz?

3) 2000ko iraileko agerraldiaz geroztik, zehatuzko adingabeentzako araubide itxiko zentro espezializatuak eta internamendua beharrezko egiten duten nahaste psikikoak edota drogamenpekotasuna dauzkaten adingabeentzako zentroak abiarazteko zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak?

4) Beste autonomia erkidego batzuen jarrera ikusirik (Adingabeen Legea betetzeari ezezkoa eman dio Kataluniak, eta Madril eta Andaluziak esan dute ezin dutela bete), zein da Nafarroako Gobernuak jarraian izanen duen jarrera 5/2000 Lege Organikoa aplikatzeari dagokionez?

5) Gaur egungo Lagun Etxea, Sin Fronteras eta Ilundaingo granja-eskola zentroetan araubide erdi irekiko eta irekiko neurriak aplikatzeko hainbat arlotan –azpiegitura fisikoak, plantillak handitzea eta dagoeneko dauden langileek dituzten hutsaren hurrengo soldatak igotzea– behar diren hobekuntzak egiteko zer aurrekontu zenbatetsi da?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planak aurreikusirik zeukan zenbait igerileku estali eraikitzea, beste hainbeste eskualdetan, Nafarroako

herrietan zerbitzu mota horri dagokionez dauden eskariei eta gabeziei erantzuna emateko.

Kasu bakoitzean azpiegitura hartuko zuen eskualde-buruaren inguruko erabakia hartu beharrrak nolabaiteko tira-birak eragin ditu Nafarroako udalen artean.

Horregatik guztiagatik jakin nahi dugu:

1.-Zein dira 2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planari jarraikiz eraiki asmo diren igerileku estaliak eta zein herritan kokatuko dira?

2.-Zein izan dira Nafarroako Gobernuak igerileku bakoitzaren kokagunea erabakitzeko irizpideak eta arrazoiak? Nafarroan, 2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planaren babesean igerileku estaliak eraikitzeari buruz departamentuek luzatutako txostenen kopiak nahi ditugu.

3.-Zein da, kasu bakoitzean, igerileku estalia eraikitzeako aurreikusirik diru-ekarpena? Finantzazio horrek zerikusirik al du eskualdeko proiektu bakoitzari atxikitako udalen kopuruarekin?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Galarko lurretan etxebizitzak eraikitzeari eta Iruñean Teknologia Berrikuntzako Parkea instalatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Galarko lurretan etxebizitzak eraikitzeari eta Iruñean Teknologia Berrikuntzako Parkea instalatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak erabaki du Teknologia Berrikuntzako Parkea behin betikoz kokatzea Donapeako lurretan. Une hauetan, badakigu Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektorial bat prestatzen ari dela, Donapeako alde horre-

tan, aurreikusitakoaz gain, 1.500 etxebizitza eraiki ahal izateko Galarko lurretan.

Egoera horren aurrean, jakin nahi dugu:

1.- Zein dira arrazoiak Nafarroako Gobernuak Teknologia Berrikuntzako Parkearen hasierako planteamenduari Galarko lurretan 1.500 etxebizitza eraikitzeo aukera gehitzea aurreikus dezan?

2.- Zein dira arrazoiak Teknologia Berrikuntzako Parkea Iruñeko lurretan eraikitzeo eta 1.500 etxebizitza eraikitzeo aukera, berriz, Galarko lurretan aureikusteko?

3.- Udalez gaindiko plan sektorialaren planteamendu berriak Galarko eta Iruñeko udalen sostengua al du?

4.- Teknologia Berrikuntzako Parkeak 8.000 milioiko aurreikuspena zuen hasieran, eta horietatik 7.000 erositako lurren kalteordainetarako zeuden aurreikusirik. Kostuaren aurreikuspen horrek indarra al du oraindik, kontuan harturik Donapeako lurretako hasierako xedea nabarmen aldatu dela? Egun lur horietan egin beharreko inbertsioari buruzko datuak eskatzen ditugu.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Nafarroako ubideko obrei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako ubideko obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Ubidearen lanak joan zen urteko uztailearen 18an adjudikatu baziren ere, lanak ez dira oraindik hasi.

Hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zein dira arrazoiak Nafarroako Ubidearen lanak hasi gabe egoteko iazko uztailearen 18az geroztik? Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak hasi daitezkeela lanak? Atzerapen honek eragina izanen du Nafarroako Ubidea errealitate bihurtu eta Nafarroako zenbait aldetan bulztada ekonomiko garrantzitsua izateko epeetan?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidea kudeatzeko hitzarmena aldatu behar ote den? Nolako aldaketa izanen da? Jakinarazi al die Nafarroako Gobernuak nekazaritzako elkar-teei eta ureztatzailen komunitateei Nafarroako Ubidea kudeatzeko hitzarmena alda daitezkeela?

3.- Nafarroako 2001eko aurrekontuetan Nafarroako Ubiderako onartu diren kontusail txikien arrazoiak zein da?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Urtarrilaren 13an indarra hartu zuen Adingaberen erantzukizun penalari buruzko lege berriak. Andaluziako, Kataluniako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Galiziako, Kanarietako, Nafarroako eta Valentziako Erkidegoko Justizia kontseilariek, Justizia ministroarekin izandako bilera batean, moratoria bat eskatu zuten, legea aplikatzeko behar diren giza eta gauza baliabideak prestatu bitartean.

Espetxeetako Erakundeek diotenez, Nafarroan legeak agintzen dituen neurriak abian jartzeak ez luke inolako kosturik ekarriko. Gainera, Nafarroan ez dago 16tik 18ra bitarteko adingabe bat ere zigorra betetzen eta beraz, ez da inor gartzeleratu beharko lege berriaz baliatuz ezarri daitezkeen

zigorrak betetzeko. Nafarroak ez du, egun, araubide itxiko tokiak, delituak egiten ditzuten adingabeentzat direnak, alegia, eskaintzen dituen zentrorik.

Egoera horren aurrean hauxe jakin nahi dugu:

1.- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Fiskaltzan adingabeez arduratzen den fiskalak dioenez, Adingabeen Epaitegiak behar bezala jarduteko beharrezkoak izanen lirateke bi administrari laguntzaile, agente bat eta behar adinako baliabide informatiko. Hortaz, Nafarroako Gobernuak aurreikusi duenaren arabera, noiz hornitu ahal izanen du Adingabeen Epaitegia adingabeez arduratzen den fiskalak eskatutako baliabideez?

2.- Adingabeen Fiskaltzak salatu du, halaber, egungo Justizia Jauregian ez dagoela tokirik. Nafarroako Gobernuak pentsatu al du nola konpondu arazo hori, premia berriei erantzuteko plan-tilla handitu behar dela kontuan harturik?

3.- Nafarroako Gobernuak bilerarik izan al du beste autonomia erkidegoetako arduradunekin Nafarroatik kanpo eraiki ahal izateko Adingabeen Legeak agintzen dituen baldintzak betetzen dituen zentro bat, horrelako zentro batean sartu beharreko nafarrak har ditzan?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Trenbide-pasaguneak kentzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak trenbide-pasaguneak kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Sustapen Ministerioak konpromisoa hartu du eraso plan bat gauzatzeko, autonomia erkidegoe-

kin batera, hurrengo lau urteetan Espainiako trenbide sarean dauden 792 pasagune arriskutsuenak kentzeko.

Plan honen tamainarekin ere, bete ondoren 4.216 pasagune geldituko dira Espainian, eta horietatik 2.400 pasagunek baino gehiagok ez dute ez langarik ez semafororik, seinalizaturik besterik gabe.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.-Sustapen Ministerioak trenbideko pasagune arriskutsuenak kentzeko autonomia erkidegoekin izenpetu behar duen hitzarmenean, zein dira Nafarroan kenduko direnak 2001-2004 aldian?

2.-Zein da Nafarroan oraindik dauden pasaguneetako eguneko batez besteko intentsitatea eta zein da pasagune bakoitzaren kalifikazioa?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzeak Nafarroako epaitegiek gainezka egitea ekarri du. Iruñeko Abokatuen Elkargoko gobernu batzordeak kezka handia azaldu zuen epaitegien egungo egoeratik eta lege berriak indarra hartzeak ekarriko dituen ondorioengatik. Lege berriak

organo judizialen giza eta gauza baliabideak nabarmen handitzea ekartzen duela ohartarazi zuten eta aurreratu plantilla % 50 handitu beharko dela, bai eta zortzi epaitegi berri sortu ere.

Egungo Nafarroako Justizia Jauregiak ez du premia berriei erantzuteko adina aretorik, ez eta lege berria aplikatzeko behar den bideograbazio ekipoa duen aretorik ere.

Nafarroak Justizia Administrazioaren gauza baliabideak eskualdurik dauzkanez, epaitegien azpiegitura hobetzea erkidegoari dagokio.

Egoera horren aurrean, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zer egin du edo egingen du Nafarroako Gobernuak Justizia Jauregiak bere baitan har ditzan Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzeak dakartzan betebeharrak eta premiak (epaitegi berriak, grabaziorako bitartekoak, etab.)?

2.- Nafarroako Gobernuak eskatu al dio Justizia Ministerioari giza baliabideak handitzeko lege berritik heldu diren premiak asetzeko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Itoizko urtegiko eta Nafarroako ubideko obren amaierari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Itoizko urtegiko eta Nafarroako ubideko obren amaierari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari buruz, Herrilan kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen azalpena

Egunkarietan berriki agertutako informazioen arabera, Itoizko presa egin eta amaitutzat jo zitezkeen urtegiko obrak; horrela, bada, betetze epeak

hainbatetan atzeratu ondotik, dena pronto dago lehenbiziko betetzea egiteko.

Azken hilabeteotan, Itoizko Koordinadora behin eta berriz ari da zalantzatan jartzen presaren segurtasuna. Koordinadoraren arabera, ezker aldeko mazelan luiziak izateko arriskua dago, eta zabal eta etengabe ari dira iritzi hori zabaltzen, eta administrazioari leporatzen diote ezkutatu egiten dituela arriskuen larritasunari buruzko datuak. Nahi dutena da larritasuna sortu gizartean eta

segurtasun eza zabaldu, obra horren aurkako jarreraren onerako izanen delakoan.

Idatziz erantzuteko galdera

Noiz aurreikusi du Nafarroako Gobernuak amaituko direla Itoizko urtegiko lanak eta, beraz, Itoizko presaren proiektua?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Itoizko urtegiak eta Nafarroako ubideak guztira ekarri duten inbertsioari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Itoizko urtegiak eta Nafarroako ubideak guztira ekarri duten inbertsioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du Itoizko urtegiari buruzko zenbait alderdiri buruz, Herrilan Kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen Azalpena

Egunkarietan berriki agertutako informazioen arabera, Itoizko presa egin eta amaitutzat jo zitezkeen urtegiko obrak; horrela, bada, betetze epeak hainbatetan atzeratu ondotik, dena pronto dago lehenbiziko betetzea egiteko.

Azken hilabeteotan, Itoizko Koordinadora behin eta berriz ari da zalantzatan jartzen presaren segurtasuna. Koordinadoraren arabera, ezker aldeko mazelan luiziak izateko arriskua dago, eta zabal eta etengabe ari dira iritzi hori zabaltzen, eta administrazioari leporatzen diote ezkutatu egiten dituela arriskuen larritasunari buruzko datuak. Nahi dutena da larritasuna sortu gizartean eta segurtasun eza zabaldu, obra horren aurkako jarreraren onerako izanen delakoan.

Idatziz erantzuteko galdera

Gaur arte, zer inbertsio ekarri dituzte guztira, hala Itoizko urtegiak nola horri lotutako obra osagarriek? Zer administrazio publikok hartu du bere gain finantzaketa?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Nafarroako ubideko lehen eta bigarren zatiak zertan diren jakiteko galde- ra

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako ubideko lehen eta bigarren zatiak zertan diren jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Itoizko urtegiko eta Nafarroako ubideko obrei buruzko galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako ubidea azpiegitura hidrauliko garrantzitsua da Foru Komunitatearen etorkizunari begira. Ubideak 177 kilometro ditu Agoiztik Ablitseraino, eta horren kostua 103.725 milioi pezetakoa da. Estatuak bere gain hartu behar du kostu osoaren % 60 (62.235 milioi) eta Nafarroako aurrekontuen kargura izanen da gainontzeko % 40 (41.490). Nafarroako ubideko obrak 2014an bukatzea aurreikusi da. Finantzatzeko modua dela-eta, ez dakigu deus ere erabiltzaileek ordaindu beharreko ustiapen zerbitzuari eta erabilera kanonari buruz (giza kontsumoko, industriako, nekazaritzako zein energia arloko jarduerak).

Ingurumen Ministerioak, berriz, "Aguas de la Cuenca del Ebro" sozietatea sortu zuen, zeina "Riegos de Navarra" sozietatearekin batera "Canal de Navarra, S.A." eratu baitzuen. Azken horrek egin zuen hain zuzen ere Nafarroako ubidearen lehen eta bigarren zatiko obren kontratua (12.000 milioi pezeta).

Lehen zatia Azpiroz y Saraleguik eta FCCK osatutako aldi baterako enpresen batasunari adjudikatu zitzaion 2.967 milioi pezetatan eta 21 hilabetetan egiteko epea jarrita. Bigarren zatia, aldiz, Obenasa, Urbanizaciones Iruña, Luciano Elcarte eta Dragados y Construcciones AEBri, 7.938 milioi pezetatan eta 34 hilabetetan egiteko epea jarrita. Lehen bi zati horien trazaduran lau erregulazio-aintzira egitea aurreikusten zen, eta horiek 2000n lizitatzekoak ziren, baina gaur arte ez zaio kontratatzekeko prozedurari ekin.

2000ko uztailean lehen bi zatien lanak adjudikatu ziren, eta urte bereko azaroan edo abenduan hasi behar ziren horiek egiten. Orduan iragarri zen handik gutxira kontratatuko zela hirugarren zatia –Elo-Tiebas–, lizitazioa urte bukaera aldea egiteko baitzen.

Nafarroako ubidea egin ahal izateko, beharrezkoa da hainbat lan osagarri egitea, esate baterako errepide batzuetako trazadura aldatzea.

Zertan dira Nafarroako ubideko lehen eta bigarren zatietako obrak?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Nafarroako ubideko obrak egiten ari diren enpresei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako ubideko obrak egiten ari diren enpresei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Itoizko urtegiko eta Nafarroako ubideko obrei buruzko galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako ubidea azpiegitura hidrauliko garrantzitsua da Foru Komunitatearen etorkizunari begira. Ubideak 177 kilometro ditu Agoiztik Ablitaseraino, eta horren kostua 103.725 milioi pezetako da. Estatuak bere gain hartu behar du kostu osoaren % 60 (62.235 milioi) eta Nafarroako aurrekontuen kargura izanen da gainontzeko % 40 (41.490). Nafarroako ubideko obrak 2014an bukatzea aurreikusi da. Finantzatzeko modua dela-eta, ez dakigu deus ere erabiltzaileek ordaindu beharreko ustiapen zerbitzuari eta erabilera kanonari buruz (giza kontsumoko, industriako, nekazaritzako zein energia arloko jarduerak).

Ingurumen Ministerioak, berriz, "Agua de la Cuenca del Ebro" sozietatea sortu zuen, zeina

"Riegos de Navarra" sozietatearekin batera "Canal de Navarra, S.A." eratu baitzuen. Azken horrek egin zuen hain zuzen ere Nafarroako ubidearen lehen eta bigarren zatiko obren kontratua (12.000 milioi pezeta).

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, N-232 errepideari buruzko galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

N-232 errepidearen Nafarroako puska da Nafarroako Foru Komunitateko errepideen artean istripu gehien gertatzen den errepideetako bat. 12.900 ibilgailu ibiltzen da egunero bertatik, eta horietatik % 42 trafiko astuna da. Tuteran-Fontellas errepidea bikoizteko obrak egiteko fasean daude -N-232 errepidearen Nafarroako puskako hogeita hamahiru kilometroetatik hamaika hartzen dituzte obra horiek.

Orain dela gutxi, plataforma bat sortu da Nafarroako Erriberan, kaltetutako Nafarroako herrieta-ko ordezkariak eta Aragoi eta Errioxa erkidego mugakidetakoek osatua, eta horiek eskatzen duten gauza bakarra aipatu errepideko Nafarroako puska osotara bikoiztea da. Plataforma horren ustez, N-232 errepideari berehala eman behar zaio irtenbide orokor bat, goian esandakoarengatik eta beharrezkoa delako ukitutako herrien arteko komunikazioak azkartzea eta inguruari industriaren eta merkataritzaren aldetik bultzada bat ematea. Plataforma horretako ordezkariak harremanetan izan da berrikitan Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariarekin.

Tuteran-Fontellas errepidean hasitako bikoizketa ez zaio nahikoa iruditzen plataformari, eta hortaz, arren eskatzen dute errei bikoizta jartzeko foru erkidegoko puska osoan; izan ere, bertatik, hau da, 100.000 biztanle eta erabiltzaile dituen Ebro inguruko lurralde horretatik, tokiko zein bide luzeko trafikoa igarotzen da.

Hori dela-eta egin dugu ondoko galdera:

Zertaz hitz egin dute kontseilariak eta plataformak N-232 errepideko Nafarroako puskaren bikoizketaz aritu direnean?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroan zein Estatuan KPIk izandako desbideraketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du Ekonomi kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen azalpena

2000ko ekitaldia amaitu zenean, Nafarroako Foru Komunitateko KPIa (Kontsumo Prezioen Indizea) % 4,1 igo zen: Estatu osoan izan den prezioen igoera baino hamarren bat gehiago. Azken urteotako KPIrik altuena da, eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoa bikoiztu egin du.

1999an, Foru Komunitateko KPIa Estatukoa baino 4 hamarren handiagoa izan zen (% 2,9 bata, eta % 3,3 bestea). 1998an berdina izan ziren (% 1,4). 1997an, 5 hamarren handiago izan zen (% 2,5 bata, eta % 2,0 bestea). 1996an, 6 hamarren handiago (% 3,8 bata, eta % 3,2 bestea), etab.

Ikusten ahal denez, nafarrek geroz eta erosteko ahalmen txikiagoa dute Espainiako beste eskualdeekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuak ez du batere ahalmenik izan egoera hori zuzentzeko.

Are larriagoa da etxebizitzetara eta jakiei dagokienez. Etxebizitzaren arloan, Foru Komunitateko KPIa, 2000 urtean, Estatukoa baino 1,3 handiagoa izan zen (% 5,9 bata, eta % 4,6 bestea); jakien arloan ere, Nafarroakoa handiagoa izan zen (% 4,1 bata, eta % 3,2 bestea).

Hori dela-eta, hona idatziz erantzuteko galdera:

Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak berriazko ekintzarik Nafarroa eta Estatuaren arteko alde hori konpontzeko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak elikagaien eta etxebizitzaren sektoreetako prezioen moderazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du Ekonomi kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen azalpena

2000ko ekitaldia amaitu zenean, Nafarroako Foru Komunitateko KPIa (Kontsumo Prezioen Indizea) % 4,1 igo zen: Estatu osoan izan den prezioen igoera baino hamarren bat gehiago.

Azken urteotako KPIrik altuena da, eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoa bikoiztu egin du.

1999an, Foru Komunitateko KPIa Estatukoa baino 4 hamarren handiagoa izan zen (% 2,9 bata, eta % 3,3 bestea). 1998an berdina izan ziren (% 1,4). 1997an, 5 hamarren handiago izan zen (% 2,5 bata, eta % 2,0 bestea). 1996an, 6 hamarren handiago (% 3,8 bata, eta % 3,2 bestea), etab.

Ikusten ahal denez, nafarrek geroz eta erosteko ahalmen txikiagoa dute Espainiako beste eskualdeekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuak ez du batere ahalmenik izan egoera hori zuzentzeko.

Are larriagoa da etxebizitzetara eta jakiei dagokienez. Etxebizitzaren arloan, Foru Komunitateko KPIa, 2000 urtean, Estatukoa baino 1,3 handiagoa izan zen (% 5,9 bata, eta % 4,6 bestea); jakien arloan ere, Nafarroakoa handiagoa izan zen (% 4,1 bata, eta % 3,2 bestea).

Hori dela-eta, hona idatziz erantzuteko galdera:

Zer neurri pentsatu du hartzea Nafarroako Gobernuak jakien eta etxebizitzaren arloko prezioen igoera moteltzeko?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán.

Inflazioa gutxitzeko neurri buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak inflazioa gutxitzeko neurri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du Ekonomi kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen azalpena

2000ko ekitaldia amaitu zenean, Nafarroako Foru Komunitateko KPIa (Kontsumo Prezioen Indizea) % 4,1 igo zen: Estatu osoan izan den prezioen igoera baino hamarren bat gehiago. Azken urteotako KPIrik altuena da, eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoa bikoiztu egin du.

1999an, Foru Komunitateko KPIa Estatukoa baino 4 hamarren handiagoa izan zen (% 2,9

bata, eta % 3,3 bestea). 1998an berdina izan ziren (% 1,4). 1997an, 5 hamarren handiago izan zen (% 2,5 bata, eta % 2,0 bestea). 1996an, 6 hamarren handiago (% 3,8 bata, eta % 3,2 bestea), etab.

Ikusten ahal denez, nafarrek geroz eta erosteko ahalmen txikiagoa dute Espainiako beste eskualdeekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuak ez du batere ahalmenik izan egoera hori zuzentzeko.

Are larriagoa da etxebizitzetara eta jakiei dagokienez. Etxebizitzaren arloan, Foru Komunitateko KPIa, 2000 urtean, Estatukoa baino 1,3 handiagoa izan zen (% 5,9 bata, eta % 4,6 bestea); jakien arloan ere, Nafarroakoa handiagoa izan zen (% 4,1 bata, eta % 3,2 bestea).

Hori dela-eta, hona idatziz erantzuteko galdera:

KPIa hamarren bat igotzen den bakoitzeko, Nafarroari, funtzionarioak konpentsatzea bakarrik, ehun milioi kostatzen zaio. Ez al duzu uste edozein neurri hartuta ere, merkea izanen dela inflazioa kontrolatzea lortuz gero?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak PFEZko atxikipenei eta horrek inflazioan duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du Ekonomi kontseilariak erantzun diezaion.

Zioen azalpena

2000ko ekitaldia amaitu zenean, Nafarroako Foru Komunitateko KPIa (Kontsumo Prezioen Indizea) % 4,1 igo zen: Estatu osoan izan den prezioen igoera baino hamarren bat gehiago. Azken urteotako KPIrik altuena da, eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoa bikoiztu egin du.

1999an, Foru Komunitateko KPIa Estatukoa baino 4 hamarren handiagoa izan zen (% 2,9 bata, eta % 3,3 bestea). 1998an berdinak izan ziren (% 1,4). 1997an, 5 hamarren handiago izan zen (% 2,5 bata, eta % 2,0 bestea). 1996an, 6 hamarren handiago (% 3,8 bata, eta % 3,2 bestea), etab.

Ikusten ahal denez, nafarrek geroz eta eroste-ko ahalmen txikiagoa dute Espainiako beste eskualdeekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuak ez du batere ahalmenik izan egoera hori zuzentzeko.

Are larriagoa da etxebizitzetara eta jakiei dagokienez. Etxebizitzaren arloan, Foru Komunitateko KPIa, 2000 urtean, Estatukoa baino 1,3 handiagoa izan zen (% 5,9 bata, eta % 4,6 bestea); jakien arloan ere, Nafarroakoa handiagoa izan zen (% 4,1 bata, eta % 3,2 bestea).

Hori dela-eta, hona idatziz erantzuteko galdera:

Soldatetan PFEZagatik atxikipenak txikitu egin dira, eta PFEZari buruzko Legea ere aplikatzen hasi da. Zenbaterainoko eragina izan du horrek guztiak inflazioaren handitzean?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Etxebizitzaren egoera arintzeko neurriei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak etxebizitzaren egoera arintzeko neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera bat tramitatzea eskatu du, etxebizitzaren inguruko aurreikuspenei buruzkoa, Lurraldearen Antolamendu, etxebizitza eta Ingurugiro kontseilariak idatziz erantzun diezaion.

Zioen azalpena

Etxebizitza eskuratzeko arazoa da egun Foru Komunitateko herritarren kezka nagusietako bat, bereziki zailtasunak dituztenena, egoera ekonomi-

koa baldintzatzen duten faktore askorengatik, hala nola, lan ezegonkorra izatea edo lanik ez izatea, emantzipatzeko asmoa izanik horretarako ahalmenik ez duten gazteak, gurasobakarreko familiaburu izatea, etab. Nafarroako Gobernuak, ordea, ez dio arazoaren konponbideari heldu, eta gure ustez, etxebizitza duina normaltasunez eta azkar eskuratzea bermatu beharko luke, errentan hartuta edo jabetzan, Nafarroako herritarren ahalmen ekonomikoei egokituta eta haien inguruabar sozioekonomikoak kontuan harturik.

Bitartean, egoera geroz eta larriagoa da, erakitzeke lur gutxi gelditzen da, dagoena garestitu egin da eta Gobernuak behin eta berriz atzeratzen du etxebizitzaren arloan neurri berritzaileen ezarpena, orain arte aplikatu direnak, nahikoak ez baitira, eguneratzeko.

Ez da aski eskaintzea, planifikaturik eta bata bestearen atzetik, prentsa-oharrak eta Barcina eta Marcotegui jaun-andreen argazkiak, obretan bisitan eta giltzak entregatzen, aurrez diseinaturiko

jarioan, etxebizitza arloan politika eraginkorraren itxurak egiteko. Estatistiken errealitate gordinak egiazko aurpegia erakusten digu, alegia, etxebizitzaren prezioa goraka doala etengabe.

Egoera honen zergatia da Lurraldearen Antolamenduren plangintza eza, duela bi legegintzalditik honainokoa, lehendik ezarritako lege tresnen erabilera urria eta kudeaketaren zalantzazko eraginkortasuna; guztia dela-eta arazoak, konpondu beharrean, areagotu egin dira eta, urtez urte, familiek etxea erostera bideratu beharreko diru kopurua handiagotzen doa, beste gastu batzuen kaltetan.

Galdera, idatziz erantzuteko:

Zer egin da azken bost urteotan eta zein aurreikuspen ditu Departamentuak Nafarroan etxebizitzaren arazoari irtenbidea bilatzeko neurriak ezartzeaz?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera bat tramitatzea eskatu du, Nafarroan migrazioak dituen ezaugarriei buruzkoa, Gizarte Ongizatearen kontseilariak idatziz erantzun diezaion.

Zioen azalpena

Parlamentuko Talde Sozialistak, Inmigrazioaren Batzorde Berezia behin sortuta, beharrezkotzat jotzen du behar adina informazio lortzea Nafarroako Gobernuarengandik, Nafarroan migrazioak dituen alderdi ezberdinak azaltzeko.

Nafarroako Parlamentuak, gure erkidegoan etorkinei eman beharreko laguntzari buruzko eztabaidari ekin baino lehen, ezagutu behar du Administrazioak gai honetan egiten duena.

Nafarroako Gobernuak hainbat argibide eman beharko luke, alderdi hauetaz, bereziki: gure erkidegoan dauden legezko etorkinen kopurua, ez-legezkoen zenbatespena, baita hurrengo urteetarako zenbatespena ere, etorkinentzako gizarte neurriak, Lan Ordezkaritzak ez-legezko etorkinen kontratazioa norainokoa den jakiteko egindako kanpainaren emaitzak, zer egiten den gizatalde hau gizarterazteko eta bizikidetasuna egokia izateko, eta zein diren migrazioaren gaian erabiltzen diren dispositibo eta azpiegiturak.

Galdera, idatziz erantzuteko

Zer ari da egiten Gizarte Ongizatearen Departamentua etorkinentzako gizarte laguntzaren inguruan?

irruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Lan Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketeki buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Lan Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketeki buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera bat tramitatzea eskatu du, Nafarroan migrazioak dituen ezaugarriei buruzkoa, Lan kontseilariak idatziz erantzun diezaion.

Zioen azalpena

Parlamentuko Talde Sozialistak, Inmigrazioaren Batzorde Berezia behin sortuta, beharrezkotzat jotzen du behar adina informazio lortzea

Nafarroako Gobernuarengandik, Nafarroan migrazioak dituen alderdi ezberdinak azaltzeko.

Nafarroako Parlamentuak, gure erkidegoan etorkinei eman beharreko laguntzari buruzko eztabaidari ekin baino lehen, ezagutu behar du Administrazioak gai honetan egiten duena.

Nafarroako Gobernuak hainbat argibide eman behar luke, alderdi hauetaz, bereziki: gure erkidegoan dauden legezko etorkinen kopurua, ez-legezkoen zenbatespena, baita hurrengo urteetarako zenbatespena ere, etorkinentzako gizarte neurriak, Lan Ordezkaritzak ez-legezko etorkinen kontratazioa norainokoa den jakiteko egindako kanpainaren emaitzak, zer egiten den gizatalde hau gizarateratezko eta elkarbizitza egokia izateko, eta zein diren migrazioaren gaian erabiltzen diren dispositibo eta azpiegiturak.

Galdera, idatziz erantzuteko

Zer ari da egiten Lan Departamentua etorkinentzako gizarte laguntzaren inguruan? Zein emaitza izan ditu Lan Ordezkaritzak etorkin ez-legezkoen kontratazioaren norainokoa jakiteko eginiko kanpainak? Zein sektoretan egiten duten lan etorkinek gure erkidegoan?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Barne Departamentuak emigrazioa dela-eta egindako jarduketei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Barne Departamentuak emigrazioa dela-eta egindako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera bat tramitatzeari buruzkoa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun diezaion.

Zioen azalpena

Parlamentuko Talde Sozialistak, Inmigrazioaren Batzorde Berezia behin sortuta, beharrezko-

tzat jotzen du behar adina informazio lortzea Nafarroako Gobernuarengandik, Nafarroan migrazioak dituen alderdi ezberdinak azaltzeko.

Nafarroako Parlamentuak, gure erkidegoan etorkinei eman beharreko laguntzari buruzko eztabaidari ekin baino lehen, ezagutu behar du Administrazioak gai honetan egiten duena.

Nafarroako Gobernuak hainbat argibide eman beharko luke, alderdi hauetaz, bereziki: gure erkidegoan dauden legezko etorkinen kopurua, ez-legezkoen zenbatespena, baita hurrengo urteerako zenbatespena ere, etorkinentzako gizarte neurriak, Lan Ordezkaritzak ez-legezko etorkinen kontratazioa norainokoa den jakiteko egindako kanpainaren emaitzak, zer egiten den gizatalde hau gizarteratezko eta elkarbizitza egokia izateko, eta zein diren migrazioaren gaian erabiltzen diren dispositibo eta azpiegiturak.

Galdera, idatziz erantzuteko

Zer ari da egiten zure Departamentua migrazioaren gaiaren inguruan? Zein da langile etorkin legezko eta ez-legezkoen kopuruaren zenbatespena?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Uxuen hildako ardiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Uxuen hildako ardiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoe-tan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Orain dela gutxi, 103 ardi ageri dira itota Uxueko udalerrian, eta ez da jakin zeren ondorioz hil diren. Abeltzainak heriotza horiek direla-eta hiru milioi inguru galdu ditu, eta Abeltzaintza Departamentuak kalte horien ordainak pagatuko ditu. Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Sartuko al ditu Abeltzaintza Departamentuak abeltzainarentzako laguntza horiek behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formeen planean?

2. Uxuen itota hildako ardi bakoitzarengatik zenbateko kalte-ordaina ezarriko du Departamentuak? Berdinak izanen al dira Uxueko abeltzainak jasoko dituen kalte-ordainak eta joan den udan "scrapie" gaitzak jotako ardiengatik abeltzainei eman zitzaizkienak?

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak aski direla jardueran berriz hasteko joan den udan "scrapie" gaitzak dela-eta eman ziren kalte-ordainak?

4. Ba al du Nafarroako Gobernuak errekurtsorik ebazteke joan den udan Nafarroako granja

batzuetan "scrapie" gaitz gisa deklaratu ziren haiek direla-eta erabili zuen prozeduraren eta eman zituen kalte-ordainen ondorioz?

5. Zergatik joan den udan "scrapie" gaitzak jotako ardiak lurperatu eta karez estali behar ziren eta egun bai entzefalopatia espongiformeak jotako behiak, bai Uxuen itota hildako ardiak erraustu behar dira?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako ubideko obrak egiteko sinatu zen hitzarmenaren aldaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galderak egin ditu Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Prentsan irakurri ahal izan dugu Canal de Navarra sozietate publikoak eta Ingurumen Ministerioak aldatu egin dutela 200ko urtarrilaren 19an sinatutako hitzarmena –haren bitartez, baimena eman zitzaion enpresa horri obrei ekiteko.

Obra horretan gastatuko bide den diru kopuru itzela dela-eta auziak duen oihartzuna ikusita eta

kontuan izanik Nafarroako Gobernuak ez diola iritzi publikoari aldaketaren berri modu ofizialean eman, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko galderak egin ditu:

1.- Noiz, zertan eta zergatik aldatu da lehen aipatutako hitzarmena?

2.- Noiz eta zeri buruz eman dio informazioa iritzi publikoari Nafarroako Gobernuak –sozietate publiko horretan parte hartzen baitu– hitzarmen horren aldaketa dela eta?

3.- Nola jasotzen da, hitzarmena aldatu ondotik, obraren onuradunek ordaindu beharreko konpromisoa?

4.- Antza denez, onuradunen identitateen zehaztasun ezak eragin du aldaketa. Hori horrela bada, hitzarmena berriro alda daiteke –edo bertan behera geratu– baldin eta ustezko onuradunek ordaintzeko konpromisoa hartzen ez badute?

5.- Hitzarmenaren arabera, nola egingen litzateke Nafarroako ubidearen finantziazioa baldin eta ordaintzeko konpromisoa hartu duen onuradunik ez balego?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 23an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Laguntza soziosanitariorako foru plana igortzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak laguntza soziosanitariorako foru plana igortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko osasun gaietarako eledun María Isabel Arboniés Bermejok, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Parlamentuaren 2000ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuraren erabakiak Foru Gobernua premiatu zuen hiru hilabeteko epean laguntza soziosanitarioari buruzko plan bat egin zezan. Plan horren aurreproiektua ukituriko elkarte eta kolektiboek bidali zitzairen, 2000ko uztaila bitarte zuzenketak aurkez zitzairen. Orain arte, plan horretako proiektua ez da iritsi Nafarroako Parlamentura, bertan izapidetzeko.

Aurreproiektua dela eta, ordea, kritika asko egin dira, zehaztugabea delako, langai duen egoeraren ebaluaziorik ageri ez delako, lortu beharreko helbururik ez dagoelako, abian zein baliabide jarri behar diren ez delako esaten, eta beste eskasia batzuegatik; esate baterako, 2001erako 50 milioi pezetako aurrekontua dago, eta horrekin bideraezinak dira Nafarroako biztanleen zati handi baten behar errealei eman beharreko erantzunak.

Izan ere, pertsonen % 30 inguruk ditu bere buruaz baliatzeko arazoak ezgaitasunarengatik, gaixotasun kronikoengatik, zaharturik egoteagatik, drogamenpekotasunarengatik eta era askotako urritasun eta patologiengatik.

Agiri horri egin zaizkion kritikak bat datoz esatean edukirik ez duela eta laguntza soziosanitarioari buruzko foru plana huts egindako proiektu bat dela, ez konponbiderik ez diru baliabiderik jartzen ez duelako. Horrek halako frustrazio sentimendu bat sortu du aurreproiektua aztertu duten gizarte talde batzuegan, eta bereziki adimen gaixoen kolektiboan. Hain zuzen ere, gaixo horiek 15 urtez itxaron dute egun duten egoera tragikoa gainditzeko balioko duen konponbide bat iristea; gaixo horiekiko arreta ezak gainzama bat ekartzen dio familiari, eta zama hori dela-eta bai gaixo kronikoren egoera, bai bere ingurune hurbilekoen egoera larriago bihurtzen da.

Hori guztia dela eta, jakin nahi dugu:

1) Noiz igorriko du Gobernuak Parlamentura laguntza soziosanitarioari buruzko foru plana?

2) Gehitu al zaizkio aurreproiektuari osasun laguntzari buruzko ekarpenik –halakorik ez zegoen gizarte erakundeei bidalitako agirian–? Gehitu al zaizkie beste hauek: egoera errearen ebaluazioa, lortu beharreko helburuak, epe motz eta ertainean aurreikusiriko bilakaera, erabiltzeko dauden baliabideak, epeak eta jarduketan aurrekontua?

3) Zer dela eta kendu da kargutik 2000ko azaroaren 24an laguntza soziosanitarioari buruzko planaren koordinatzailea, 2000ko irailaren 29an izendatutakoa, errekor guztiak gaindituta?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Labore transgenikoak direla-eta onetsitako erabakia betetzeari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak labore transgenikoak direla-eta onetsitako erabakia betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak ebazpen bat onetsi zuen 1999ko martxoan, labore transgenikoen egoera dela eta (26. NPAO, martxoaren 26koa).

Ebazpen hartan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen, besteak beste, nekazaritza-diagnostikoa egin dezan, urtero, Foru Komunitateko labore transgenikoei buruz.

Diagnostikoa ondokoei bidaltzeko eskatzen zen: Nafarroako Parlamentuari, eta Foru Komunitateko nekazaritza-elkarteei, kontsumitzaileen elkarteei eta erakunde ekologistei.

Halere, gaur arte ez da inon ageri diagnostiko hori egin denik. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Bete al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuaren ebazpena (26. NPAO, 1999ko martxoaren 26koa), zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen, besteak beste, nekazaritza-diagnostikoa egin dezan, urtero, Foru Komunitateko labore transgenikoei buruz?

Ebazpenak agindutakoa bete ez badu, zergatik izan da?

– Aztertuko al du Nafarroako Gobernuak, aurre eta ondoko urteetan, Foru komunitateko labore transgenikoen egoera, Parlamentuko ebazpenak agindu legez?

– Zein da labore horien egungo egoera Nafarroan? zein labore daude? non daude? zenbat dira?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 25ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Vianako Las Cañasko aintziraren egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Vianako Las Cañasko aintziraren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Vianako Las Cañasko aintziraen egoera negargarria ikusita, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Babes aldetik, zer sailkapen du Vianako Las Cañas aintzirak?

2.- Jasotzen al du Nafarroako Gobernuak Europar Batasunaren laguntzarik Vianako Las Cañas aintzira dela eta?

3.- Zenbat diru erabili du Nafarroako Gobernuak azken hiru urteotan aipatu urmaela mantentzeko?

4.- Zer mantentze lan egin du Nafarroako Gobernuak azken hiru urteotan urmael horretan? Lanen zerrenda eta horiek egin diren datena jaso nahi dugu.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Viana II aldea ureztatzeko eremu bihurtzeko gasturik ez aurreikusteari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Viana II aldea ureztatzeko eremu bihurtzeko gasturik ez aurreikusteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

1998aren bukaera aldean onetsitako Nafarroako ureztaketaren planean, 2000. urterako 1496 milioi pezetako gastua aurreikusi zen; horietatik 748 Mendaviako Rubio Alto alderako ziren, eta beste 748 Viana II alderako. Nafarroako Gobernuak Nekazaritza kontseilariak Parlamentura igorritako erantzun batean zera zioen: "une honetan (2000ko azaroaren 15ean), 403 milioi pezetako gastua dago baimenduta Mendaviako Rubio Alto eremurako. Ez da gasturik aurreikusi Viana II eremurako, lurzati berrantolamenduko prozesuaren izapidatzea dela eta; berrantolamendu hori atzeratu egin da Udalak eskaturiko aldaketan eta

ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa izapidetzearen ondorioz".

Harrigarri egin zaigu 2001erako Nafarroako aurrekontuetan, "Programen deskribapena" agiri-ko 720 "Nekazaritza azpiegiturak aldatu eta hobetzea"-programan agertzea zenbait herritan —Mendavia-Bargota, Urraulbeiti-Irunberri eta Funes— lehorreko lurak ureztalurren bihurtuko direla, eta haien artean ez dela Viana II eremua agertzen.

Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1.- Zergatik Nafarroako Gobernuak ez du Viana II aldea sartu lehorreko lurak ureztalurren bihurtzeko gastu-aurreikuspenean?

2.- 2000 urtean, zenbait arazo zela medio (ingurumenaren gaineko eragina eta lurzati berrantolamendua) ez zen izan gastu aurreikuspenik Viana II alderako. Konpondu al dira arazo horiek?

Ez badira konpondu, noizko aurreikusten du Nekazaritza Departamentuak konpon daitezkeela arazo horiek, kontuan izanik arazo horietako bat (ingurumenaren gaineko eragina) departamentu horren ardura dela?

3.- Zer aurreikuspen darabil esku artean Nekazaritza Departamentuak Viana II aldea ureztatzeko lanak hasteko, kontuan izanik eskualde horretan mahastiak landatzeko behar den eskubideak epea duela, eta epe hori landaketak egin gabe pasa daitezkeela?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Zeliakoen elkarteekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruzko galdera

AHOZKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zeliakoen elkarteekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruz egindako galdera Osasun Batzordean ahoz erantzuteko galdera bihurtzea erabaki zuen. Gal-

dera 2000ko urriaren 31ko 88 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruzko galdera

AHOZKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruz egindako galdera Gizarte Gaietako Batzordean ahoz erantzuteko galdera bihurtzea erabaki zuen.

Galdera 2000ko azaroaren 6ko 91 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruzko galdera

AHOZKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruz egindako galdera Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro Batzordean ahoz erantzuteko galdera

bihurtzea erabaki zuen. Galdera 2000ko azaroa-ren 27ko 104 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---